



## BEREHALAKO INFORMAZIO HORNIDURA

### AURKIBIDEA

1. [Zer da Berehalako Informazio Hornidura \(BIH\)?](#)
2. [Zergatik ezartzen da Berehalako Informazio Hornidura \(BIH\)?](#)
3. [Eragiten al die BIHa BEZaren subjektu pasibo guztiei?](#)
4. [Gipuzkoako Foru Ogasunean BIHa erabiltzera behartutako subjektu pasiboak](#)

### -BEREHALAKO INFORMAZIO HORNIDURA-

#### 1. Zer da Berehalako Informazio Hornidura (BIH)?

Balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Ogasunaren zerbitzu telematikoen bitartez eramateko sistema da. Sistema horretan, fakturazio erregistroak ia unean bertan bidaltzen dira, bide elektronikoz.

#### 2. Zergatik ezartzen da Berehalako Informazio Hornidura (BIH)?

Sistemak zerga kontrola hobetzea du helburu, eta, gainera, obligazio formalak murrizten dizkio zergadunari, [347](#) eta [340](#) ereduak aurkezteko obligazioa desagertzean delako.

#### 3. Eragiten al die BIHa BEZaren subjektu pasibo guztiei?

BEZa hilerik likidatu behar duten subjektu pasibo hauek daude behartuta BIHa aplikatzera:

- BEZaren hileko itzulketen erregistroan izena emandakoak
- Enpresa handiak (6.010.121,04 €-tik gorako fakturazioa)
- BEZaren entitate taldeen araubide berezian dauden enpresak

Dena den, aurreko ekitaldian 6.010.121,04 eurotik gorako eragiketa bolumena duten eta, beraz, enpresa handizat hartzen diren subjektu pasiboak BIHa erabiltzera behartuta egongo dira, kontuan hartu gabe beren eragiketen motaren arabera autolikidazioa aurkeztera derrigortuta dauden edo ez.

BIHa gainerako subjektu pasiboek ere aplikatu dakieke, hura aplikatzea aukeratzen badute.

#### 4. Gipuzkoako Foru Ogasunean BIHa erabiltzera behartutako subjektu pasiboak

Zergadunak behartuta daude fakturazio erregistroak Zerga Administrazio honi aurkeztera, haiek ikuskatzeko eskumena GFARI dagokionean.

Ikuskatzeko eskumen hori kasu hauetan dagokio GFARI:



1. Subjektu pasiboaren zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean eta aurreko urteko eragiketa bokumena 10 milioi € edo txikiagoa izan denean.
2. Subjektu pasiboaren zerga helbidea Gipuzkoan dagoenean eta aurreko urteko eragiketa bolumena 10 milioi € baino handiagoa izan denean, baldin eta lurralde erkidean egindako eragiketen portzentajea %75etik beherakoa bada eta Gipuzkoan eragiketak egiten baditu.
3. Subjektu pasiboaren zerga helbidea Arabako edo Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoenean eta aurreko urteko eragiketa bolumena 10 milio € baino handiagoa izan denean, beti ere Gipuzkoan eragiketen %100 egiten baditu.
4. Subjektu pasiboaren zerga helbidea lurralde erkidean badago eta aurreko urteko eragiketa bolumena 10 milio € baino handiagoa izan denean, beti ere Euskal Autonomi Erkidegoan egindako eragiketa bolumena %75 ekoa edo gehiagokoa bada (Entitate Taldearen Araubide Berezia daudenak %100) eta Euskal Autonomi Erkidegoan egiten diren eragiketen bolumen osoaren gehiengoa Gipuzkoan egiten baditu.

Eduki berriak sortu ahala ezagutzeko, izena eman dezakezu [nobedadeen harpidetza](#) zerbitzuan.